



50E/2017 Ebazpena, irailaren 8koa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia” izeneko diru-laguntzaren ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA: Espedientearen kodea: 0011-1407-2017-000000

UNIDADE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua
Euskararen sustapena eta plangintza
Euskara Sustatzeko Atala
Tfnoa.:848 426054 Faxe:.....
Helbidea: Yanguas y Miranda 27, 1.a - 31003 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Irabazi asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia / Convocatoria de ayudas a asociaciones sin ánimo de lucro para la realización de programas y actividades de fomento del euskera

Aplikatzeko araudia:

11E/2017 FORU AGINDUA, maiatzaren 10ekoa, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariak emana, “Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia” izeneko diru-laguntzaren deialdia onetsi zuen.

Aurrez aipaturiko foru aginduko hamabigarren oinarrian, “Gastuen justifikazioa” oinarrian, bi epe ezartzen dira gastuak justifikatzeko, ordainketa zatika egin ahal izateko.

Lau elkartek aurkeztu dituzte egindako jardueren eta gastuen frogagiriak, lehenengo ordainketa kudeatu ahal izateko: Irurtzongo Aizpeak, Karrikaluze elkarteak, Karrikiri elkarteak eta Topagunea Federazioak.

Horrenbestez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 129/2015 28 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak esleitzea:

IFZ	Izena	AURREKONTU-SAILA	ZENBATEKOA
G31824675	FEDERACION TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA	B30002-B3200-4819-334100: (E) Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak euskara sustatzeko	31.848,73
G31653017	KARRIKALUZE ELKARTEA	B30002-B3200-4819-334100: (E) Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak euskara sustatzeko	11.940,30
G31572654	KARRIKIRI ELKARTEA	B30002-B3200-4819-334100: (E) Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak euskara sustatzeko	16.992,50
G31513443	ASOCIACION GRUPO IRURTZUNGO AIZPEA	B30002-B3200-4819-334100: (E) Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak euskara sustatzeko	819,50

2. Ebazpen hau eta bere eranskina jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari.
3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko

errekurtsoa jar daiteke, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. . Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahal dute jurisdikzio-ordena eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hau guztia Nafarroako Gobernuaren aitzinean aldez aurreko errekerimendua egiten ahal dela ukatu gabe, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan finkaturiko modu eta epeetan.

Irunean, 2017ko irailaren 8an

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA
Mikel Arregi Perez |